



Ane Makaia - Angela Escondrillas  
Aixerrota BHI, 15-16

## AURKIBIDEA

PELLO LIZARRALDE ..... 2

SARRERA ..... 2

### *IRAGAITZAZ*

KOKAPENA ..... 3

GAIA ..... 3

ARGUMENTUA ..... 3

ISTORIOA ..... 3

PERTSONAIAK ..... 4

EGITURAKETA ..... 4

BALIABIDEAK ..... 4

IRITZIA ..... 6

BIBLIOGRAFIA - WEBGRAFIA ..... 7

## ● Pello Lizarralde

Pello Lizarralde (Zumarraga, Gipuzkoa, 1956) euskal idazlea da. 1980az geroztik Iruñean bizi da, ogibidez Euskara irakasle. Azken urteotan euskal literaturan aurki daitekeen idazle interesgarrienetako bat da. Poliki-poliki, zalapartarik gabe, ibilbide sendoa eta koherentea eraikitzen ari da, halako moldez non esan daitekeen kultuko idazlea bihurtu dela.



Horrez gain, 2003. urtean “Euskadi Saria” irabazi zuen. Bi narrazio obra argitaratu ditu: *Sargori* (1994, Pamiela) eta *Un ange passe -isilaldietan* (1998, Erein). Hainbat nobela idatzi ditu: *E pericoloso sporgersi*. *Zuri beltzean* (1984, *Lur*), *Hatza mapa gainean* (1988, Pamiela), *Larrepetit* (2002, Erein), *Iragaitzaz -ilunbistan-* (2008, Erein), eta *Orbanak* (2012, Erein).

Poesia arloan ere aritu egin da, *Hilargiaren hotzikarak* (1978, *Ustela*) obran behatu daitekeenez.

## ● Sarrera

*Iragaitzaz* Pello Lizarralde idatzitako eleberria da, lehen aldiz 2008. urtean argitaratu zena. Eleberriak Martin edo *Laster* du protagonista, kamioi baten pean agertutako hildako baten kamioia itzultzeko bide luzea burutuko duena. Gertakizun nabarmenik izango ez duen istoria honek bidaiaria arrunta batean zehar gertatutakoa narratzen du.

Pello Lizarralderen laugarren nobela honek kamioilariak izaten duten bizitza bakartiari eta lasaiari erreparatzen dio; korapilo nagusirik gabe, Martinek jarraitu egingo duen bidean zehar topatuko dituen ezustekoak kontatzen ditu.

Idazleak anekdota txikiak, hala nola autobus-gidari batekin izandako enkontruak edo elurra dela-eta herri txiki batetik ezin aterata gelditzeak, protagonista markatu egiten dituztela nabarmentzen du.

## ➤ Kokapena

*Iragaitzaz* eleberrian ez dira denbora saltorik egiten ezta gairik gurutzatzen; Martinen bidaia linealki eta korapilorik gabe narratzen da.

Hari narratibo nagusia Martinek bidaiatzen duen kamioiean ematen da. Bestalde, bidean topatzen dituen gasolindegia, biltegiak, txoferrak... aipatzen dira.

## ➤ Gaia

Martin kamioilariak kamioi bidaia arrunta batean zehar izandako bizipenak eta bidean zehar sentituko duenari buruzko gogoeta da.

## ➤ Argumentua

Martin kamioi batean agertutako hildako baten kamioia itzultzeko bide luzea burutuko du; gertakizun nabarmenik gabe, protagonistak, bere lankidearen ondasunak itzultzeko jarraituko duen bidean zehar topatuko dituen ezustekoak kontaktzen dira. Jendea eta leku berriak ezagutu eta hildakoaren familiarekin kontaktua mantentzen du. Bidaia luzea, arrunta, kamioilari bati dagokion lan-bidai normala alegia, egiten du; Martinen bakardadea eta denboraren igarotzea ikus daiteke, ez besterik.

## ➤ Istorioa

Obra ez da oinarritzen inolako trama korapilatsu edo gertakizun ikusgarritan. Kamioi baten pean azaltzen den kamioizalearen gorpua eta Martinek (Laster) hildakoaren kamioia itzultzeko burutzen duen bidaia; ez hiltzailerik, ez detektiberik, ez traiziorik, ez misteriorik, ez sorpresarik, ez eztandarik. Kamioizaleen bakardadea eta denboraren igarotzea, ez besterik.

Presentean, lehenaldirik eta geroaldirik gabe, harrapatuta dagoen pertsonaia batek, kasu honetan kamioilari batek, bidaia bat egin behar du, bidaia arrunta, kamioilari bati dagokion lan-bidaia normala alegia.

Errealitatearen eta fikzioaren arteko gurutzaketa batetik abiatzen da Pello Lizarralderen *Iragaitzaz* —*ilunbistan*— nobela. Martin pertsonaia nagusia hildako kamioilariaren kamioia jaso eta eraman beharreko lekura eramateko agindua jasotzen duen kamioilari bati. Eta Martinek bere bidaia bikoitzean (hildakoaren kamioiarekin eta ondoren berearekin) egiten dituen ibilerak agertzen dira istorioan.

## ➤ **Pertsonaiak**

Eleberriak Martin edo *Laster* du protagonista, kamioilari arrunta. Bakar-bakarrrik dago eta bere bakardadea nabarmendu egiten du Lizarraldeak esaldi, keinu eta bestelako xehetasunen deskribapenen bidez. Sentsazioei emango die garrantzi osoa, zer entzun eta zer ikusten duen kontatzen baitu xehetasun guztiekin.

Istorioan zehar elkarrizketa gutxi eta laburrak izaten ditu gainerako pertsonaiekin; beraz, pertsonaia nagusi bakarra dela esan dezakegu. Irakurleak, pertsonaien aho eta ekintzetatik isurtzen diren axola gabeko hitzen atzean ezkututzen den bestelako zer hori atzeman ahal izango du. Pertsonaiak elkarrekin izaten dituzten elkarrizketak hitz gutxikoak eta deskribapen oso zehatzekoak izaten dira, ondorioz, bidaiako zenbait pertsonaiari buruz ez da ezer ezagutzen.

Bestalde, kamioia itzultzen duenean topatzen duen mutila, Xabier, hildakoaren semea dugu. Martinek bere aitaren gauzak itzuliko dizkio eta elkarrizketa laburra izango dute.

## ➤ **Egituraketa**

Ez dago hari narratibo edo trama literario korapilatsurik. Istorioa iragaitzaz aurrera doa, “nora ezak gidatua dirudien norabidea harturik”, eta Martinen ibilbidea unean uneko ezusteko itxura batera garrantzizgabea ekintzek markatuko dute: beste kamioilariekin eginiko bidaia zatiek, autobus-gidari bilakaturiko lankide ohiarekin izaniko enkontruak, elurra dela-eta La Nava herritik ezin aterata gelditzeak, hildako kamioilariaren semeari hildako aitaren kamioiko gauzak itzultzen dizkionekoak, amarekin telefonoz izaten dituen elkarrizketa behartuek...; eta, nola ez, etengabe itxaroten dagoen telefono dei hori.

## ➤ **Baliabideak**

*Iragaitzaz* obraren tituluak baditu hainbat adiera. Egileak, *transito* adierazi nahi izan du. Hots, *bidenabar* edo *bide batez* dabilena. Nobelako protagonista, Martin edo *Laster* kamioilaria bidean bide dugu mundu ilun samar batean. *Laster* izengoitia izanagatik mundu geldo batean ibiltzearen inpresioa jaso daiteke. Hots, nobelak ibili-ibilian bizitzaren iragan gaitza transmititzen du.

Martinen berba jarioa neurtua da, eta berarekin gurutzatzen direnen berbak ere neurritsuak. Kontatzeko moldeak egiten du bereiz Lizarralderen

literatura. Edo bestela esanda: Lizarralderen literatura batez ere mundua kontatzeko modua da.

Autore honen aurreko nobela eta ipuin liburuen ildotik, honakoa ere ez da liburu samurra, gutxi du ikusteko literatura denbora-pasa gisa ulertzen duten lanekin. Gehiago da apustu estilistiko muturrekoa, irakurlea esperientzia narratibo berezi eta zorrotz batera eramango duena. Bestalde, planteamendu estetiko zehatz horietan bermatuta, idazleak giza existentziaren metafora ere eskaintzen du bere obran, pertsonaiaren bidaian (bakardadean egindako bidaia) islaturik ikus baitaiteke gizakiaren bizitza.

Esan bezala, obra ez da oinarrizten inolako trama korapilatsu edo gertakizun ikusgarritan. Kamioizaleen bakardadea eta denboraren igarotzea, ez besterik. Obra erronka narratibo berezi horretan sostengatzen da, ezerezean zintzilik, estiloari eta idazkerari berari esker. Eta arraroa badirudi ere, hala ere, ez dago manierismorik, ez dago apaingarririk, ez eta lirismo merkerik. Lizarralde, ez darabil soberako hitzik, erretorikarik; deskribapen luze eta zabalak, elkarrizketa labur gutxi batzuk, pertsonaien barne-gogoetarik batere.

Lagin argigarria da 46. orrialdeko azken lerrokada:

*...asfaltoaren bestaldeko muino marraskatuan gorri bizia da lurraren tonua eta beltzak hegaletako zulo ugarien sarrerak. Aire aratzean barrena uso saldo bat dabil hegan, transformadore-etxola erori baten inguruan (...) Hotzak dira mortutik datozkien boladak, hotza lumadi harrotuaren azpiko urruma.*

Hala, paisaiak (naturak batzuetan, zibilizazioak besteetan) hartzen duen garrantzia handia nabarmendu behar da, pertsonaien barne zerak laguntzeko, narrazioak aurrera egiteko, obraren ikuspegia osatzeko.

Eta tonu gris samarra gailendu zaio kontakizunari, erauntsia lehertu aurrekoaren antzekoa, deserosotasun puntu batekin, oro har:

*...burua altxatu du eta une horretan ordoki mortuko zero zati bat ikusi du eta haren argipean euri tantak dilindan lur gaineko landare ihartuen zurtoinetan.*

Pertsonaiak eurak ere ildo bertsuan marrazturik daude, Martin protagonistarekin hasi eta pasatu baino egiten ez den azken morroiarekin bukatu arte. Eta dena lurralde aseptiko batean zehar, erreferentzia geografikorik (erreal edo fikziozko) gabe ia: *“tenore horretan hegoalderako autobus bat gelditzen dela arratsero”*.

## ➤ Iritzia

*Iragaitzaz* eleberriak Pello Lizarralderen mundu literarioa gorpuzten du. Zehatz-mehatz kontatua, xehetasun oro ematera dator, gizakiok munduan garen huskeriaren agergarri. *Ilunbistan* iragaten den mundua deskribatu digu idazle honek. Munduan, baita Lizarralderen mundu birtualean, iragan direnak ez dira huskeria, iragaten direnak izugarriak dira. Gu gara ordea, bere pertsonaiak kasurako, txiki-txikiak eta ia ezereza bihurtu garenak.

Bere ibilbidea interesgarrienetako bat da, eta, bost urtero, narrazio-liburu bitxi bat eskaintzen die euskal irakurleei. Presentean, lehenaldirik eta geroaldirik gabe, harrapatuta dagoen pertsonaia batek, kasu honetan kamioilari batek, bidaia bat egin behar du, bidaia arrunta, kamioilari bati dagokion lan-bidaia normala alegia. Argumentu txiki honekin Lizarralde oso estetika pertsonalean oinarritutako literatur lan miresgarria eraikitzeko gai da. Protagonistak, Martinek, kamioia daraman bitartean ikusiko du nola elurra ari duen zeharkatu behar duen paisaiaren gainean. Idazleak sentazioei ematen die garrantzi osoa, zer entzuten den, zer ikusten den, kontatzen baitu xehetasun guztiakin. Bitartean, pertsonaiek ia ez dute elkarrekin hitz egiten.

Istoria heriotza batekin hasten da, eta amaiera aldera ere, beste heriotza bat aurkituko du irakurleak. Laster, Martinen ezizenak ere, iragaitzaren eta azkartasunaren ideiak eman ditzake aditzera. Izan ere, guztiok gara iragaitzaz mundu honetan, eta zer esanik ez joan-etorrian, pausalekurik gabe, bidaia luzeetan errepidean aurrera eta atzera dabiltzan Martin bezalako kamioilariak.

Idazleak, bestalde, uko egiten dio pertsonaiek pentsatzen dutenaz ezer kontatzeari, pertsonaien iraganaz ezer azaltzeari. Gauzak honela, gertakariak, guztiz arruntak edo egunerokoak badira ere, arrotasun berezi batez horniturik agertuko zaizkigu, ia misterioz beterik egongo balira bezala. Elkarrizketa apur horiek eta gertakari arruntan kontraera xehe horrek osatzen duten mosaikoa bete beharko du irakurleak, gertakarien eta hitzen atzean zentzuren bat dagoela sinistu nahi baitu. Pello Lizarralde maisua da honelako giro arrotzak eraikitzen, eta ezaugarri honi gaineratu behar zaio erabiltzen duen literatur hizkuntza. Lizarraldek ez du idazten denbora pasako istorio bat kontatzeko edota euskal literaturaren merkatu berezian salmenta izugarriak izateko. Irakurlearen aldetik jarrera berezia eskatzen duen literatur lana da berea.

Bereziki azpimarratzekoa da eszena horien gainean idazleak eginiko girotze lanaren lorpena, kamioi gidaria bere baitara bilduta agertuko baita bakarrik dagoenean; baina beste pertsonaien aurrean ere (izan treneko amasemeak, izan kamioian hartzen duen gizon zaharkitua, izan bere ama), Martin bakar-bakarrik dago, eta bere bakardadea are nabarmenagoa egiten da Lizarraldek aukeratzen dituen keinuen, esaldien eta bestelako

xehetasunen deskribapenen bidez. Sarritan, pertsonaien aho eta ekintzetatik isurtzen diren axola gabeko hitzen atzean ezkutatzen den bestelako zer hori atzeman daiteke, ilunbistan.

Deigarria da eszena horietako pertsonaiak eraikitzeke idazleak erabiltzen duen teknika, hitz gutxi batzuekin eta deskribapen oso neurtuekin ezin hobeki osatzen baitu pertsonaia bakoitzaren izaera. Bitxia da paisaien eta eguraldiaren inguruko xehetasunek pasarte askotan duten indar iradokitzailea ere. Irakurketa pausatua eskatzen duen obra izanda ere, fikzioaren eta kontakizunaren baitan barneratzeko aukera eskaintzen baitu Lizarralderen *Iragaitzaz* nobelak.

## ● Bibliografia

- *Iragaitzaz -ilunbistan-* liburua, Pello Lizarralde. Erein
- *Euskal Hiztegi Modernoa* hiztegia. Elhuyar
- *Baikor 2 Batxilergoa, Euskara eta Literatura*. Zubia Santillana.

## ● Webgrafia

- [eu.wikipedia.org/wiki/Pello\\_Lizarralde](http://eu.wikipedia.org/wiki/Pello_Lizarralde)
- [zaldiero.armiarma.eus/118.htm](http://zaldiero.armiarma.eus/118.htm)
- [zubitegia.armiarma.eus/?i=93](http://zubitegia.armiarma.eus/?i=93)
- <http://www.atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>
- <http://atalak.eus/ikasgela-materialak/il-hiztegitxoak/eleberriak-bilduma/iragaitzaz/iragaitzaz.pdf>
- [xuxen.eus](http://xuxen.eus)